

# ESNE-SALTZAILEA

## Gidoia

214 hitz




Basoko bidexka batetik esne-saltzailea doa, neska gazte polita da bera. Esne pitxar handi bat darama buru gainean.

Esan bezala, neska gazte ederra da, eta alaia. Zabala du gona eroso ibiltzeko. Oinetako sendoak ditu harrien artean pausoa eroso egiteko.

Esnea saltzeko asmoz azokara doa eta horrela esaten dio bere buruari:

“Esne pitxar honen truke diru mordoska emango didate, ehun bat arrautza erosteko haina. Etxera eramango ditut eta epelean eta berotu ondoren ehun txita jaioko dira. Azeri maltzurak bat edo beste eramango du baina nahikoak izango dira ongi bizitzeko. Gure mahaiko apurrez errez gobernatuko ditut etxean. Deitu orduko, denak arrapaladan niregana... Zein ongi!



Kozkortu bezain pronto, azokara eramango ditut eta txerrikume bat hartuko dut. Txerriak ez dira asko zaindu behar eta errez haziko dut. Eta zer nolako prezioa duen gaur txerri batek!

Azokara eramango dut txerria ere, eta bere diruz behia eta txahala erosi ahalko ditut. Ikuiluan jarri eta arduraz zainduko

ditut. Behiak nahiko esne emango dit eta txahal txikia ardien artean saltoka ikusteko irrikitan nago...”

Baina gure esne- saltzaile gazte politak ahaztu egin du buruan pitxarra duela eta bera, txahala bezala, saltoka hasi da bidean. Pitxarra erori zaio eta puskatu da: esne guztia zabaldu da lurretik, harri artean.

A zer zoritxarra! Hura sustoa neskarena! Burua makur, buelta eman eta etxera joan da ezer gabe.



*Esnezalea eta pitxarra. Irakurketa Eraginkorra liburutik hartuta.*